

2020-06-30eko OHIKO UDALBATZA

Irurako udaletxean, 2020ko ekainaren 30ean, arratsaldeko 19:30ean, lehen deialdia egin ondoren, Udalbatza bildu da ohiko osoko bilkura egiteko. Mahaiburua Gorka Murua Macuso izan da, udaleko alkate-lehendakaria, eta zinegotzi hauek agertu dira gaiak aztertzeko:

-Azaldu diren EH BILDU udal-taldeko zinegotziak: Noelia Lataburu Ortiz.

-Azaldu ez diren EH BILDU udal-taldeko zinegotziak: Mikel Gotzon Iturbe Saizar, Olaia Nieto Legarra eta Leticia Aristi Oria.

-Azaldu diren EAJ/PNV udal-taldeko zinegotziak: Ana Jesus Leunda Gurruchaga.

-Azaldu ez diren EAJ/PNV udal-taldeko zinegotziak: Jose Ramón Epelde Irizar, María Cristina Santos San Sebastian eta Marta Castrillo Iturralde.

Miguel Antonio Arrizabalaga Brusin Udaleko idazkari kontu-hartzaileak egin ditu idazkari-lanak.

Lehenengo aipatu behar da Koronavirus -Covid 19- izurritearen alarma egoera ikusita eta korporatiboen eta hiritarren osasuna babesteko, Alkatearen Dekretuaren bidez neurri batzuk hartu direla bilera hau egiteko eta Pleno Aretoa txikia dela ikusita, hauek izango dira hartutako neurriak:

1.-Bakarrik bileran zuzenean parte hartuko dute korporatibo hauek: Alkatea, EH Bildu udal taldearen bozeramailea, EAJ/PNV udal taldearen bozeramailea eta udaleko idazkaria.

2.-Beste zinegotziek, bere botoa delegatuko dute bere taldearen bozeramailean idatzi baten bidez. Bozeramaile bakoitzak hainbat boto izango ditu delegazioaren arabera.

Ondorioz:

-Leticia Aristi Oria, Olaia Nieto Legarra eta Mikel Iturbe Saizar, EH Bildu udal taldearen zinegotziek beren botoa Noelia Lataburu Ortiz zinegotzian delegatu dute. Orduan, berea eta hiru boto gehiago izango ditu: 4 boto.

-Jose Ramón Epelde Irizar, Maria Cristina Santos San Sebastian eta Marta Castrillo Iturralde, EAJ/PNV udal taldearen zinegotziek beren botoa Ana Jesús Leunda Gurruchaga zinegotzian delegatu dute. Orduan, berea eta hiru boto gehiago ditu: 4 boto.

3.-Bilera, publikoari itxita izango da, nahiz eta edozein herritarrek eskubidea izan bileraren akta eta audio grabazio eskuratzeko.

Alkateak hasitzat jo du saio publikoa; segituan, eta alkatearen baimenarekin, idazkariak jakinarazi du bilera egin daitekeela, bertara agertu baita gutxieneko

partaide kopurua, Toki Erregimeneko Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legeak eta azaroaren 28ko 2568/1986 Errege Dekretuak, Toki Erakundeen Antolakuntza, Funtzionamendu eta Araudi Juridikoaren Erregelamendua onartzen duenak, agindutakoa.

LEHENENGO GAIA

AURREKO AKTA ONARTZEA (2020-06-09).

Udalbatzak, aho batez, 2020ko ekainaren 9ko ez-ohiko bilkuraren akta onartu du.

BIGARREN GAIA

ALKATETZAREN DEKRETU HAUEN BERRI EMATEA: 2020/103 DEKRETUTIK 2020/131 DEKRETURA BITARTEAN.

Alkateak 2020/103 dekretutik 2020/131 dekretura bitartekoen berri eman dio Udalbatzari.

Eta udalbatza jakinaren gainean geratu da.

HIRUGARREN GAIA

2019KO UDAL AURREKONTUAREN LIKIDAZIOAREN BERRI EMATEA.

Ekainaren 24ko 137/20 Alkate dekretuaren bidez 2019ko Irurako Udaleko Aurrekontuaren likidazioa onartu da eta Udalbatzari horren berri ematen zaio.

“Udal honen 2019ko aurrekontuaren likidazioari buruz Kontu-hartzaileak osatu duen txostena ikusirik, eta likidazio horren dokumentuak aztertu ondoren, bertan jasotakoarekin bat natorrenez, abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauak, Gipuzkoako Toki Erakundeen Aurrekontuei buruzkoak, 49.3 artikuluan emandako eskumenak erabiliz, honako hau

EBATZI DUT

Lehena.- Udal honen 2019ko aurrekontuaren likidazioa onartzea. Hona hemen horren laburpena:

1.- Diruzaintzako izakin likidoak, 2019-12-31n:		+858.463,48
		+199.989,42
2.- Kobratu gabeko saldoak, 2019-12-31n:		
Aurrekontuko zordunak :	192.482,87	
Aurrekontuz kanpoko zordunak:	7.506,55	
- Aplikatu gabeko kobrantzak:	0,00	
3.- Ordaindu gabeko saldoak, 2019-12-31n:		-128.613,82

Gastuen aurrekontuko hartzekodunak:	7.471,54	
Sarreren aurrekontuko hartzekodunak:	0,00	
Aurrekontuz kanpoko hartzekodunak:	121.660,75	
- Aplikatu gabeko ordainketak:	-518,47	
4.- Diruzaintzako gerakin gordina (1+2+3):		+929.389,08
5.- Saldo kobra-gaitzak:		-47.593,92
6.- Diruzaintzako gerakin likidoa (4-5):		+881.795,16
7.- Finantzaketa lotua duten gastuetarako diruzaintzako gerakina:		-13.500,00
8.- Gastu orokorretarako diruzaintzako gerakina (6-7):		+868.295,16
9.- Aurtengo aurrekontuko eragiketen emaitza:		+249.710,92
10.- Aurreko ekitaldietan likidatutako aurrekontuetako eragiketen emaitza:		-41.102,83
11.- Doiketak, diruzaintzako gerakinaren bidez finantzatutako obligazioengatik:		22.360,40
12.- Doiketak, finantzaketa lotua duten gastuen desbiderapenengatik:		-13.500,00
13.- Aurrekontu emaitza (9+10+11+12):		+217.468,49
14.- Txerta daitezkeen kreditu gerakinak:		99.015,88
15.- Txertatu ezin diren kreditu gerakinak:		00,00
16.- Kreditu gerakinak, guztira (14+15):		99.015,88

Bigarrena.- Gipuzkoako Foru Aldundiari likidazio espedientearen kopia bidaltzea, lehen aipatutako Foru Arauak, 49.5 artikuluan, jasotakoa betez.

Hirugarrena.-Idazkari Kontu-hartzailearen txostenean adierazten dira zailak edo kobra gaitzak diren eskubideak zehaztatzeko irizpideak.

Laugarrena.- Dekretu honi eranstean zaio Idazkari Kontu-hartzailearen txostena. Bere txostenaren arabera Udalbatzari jakinarazten zaio: Likidazio honek betetzen duela aurrekontu egonkortasuna eta finantza iraunkortasunaren araudia eta baita gastu-araua ere. Horregatik ez du behar Plan Ekonomiko- finantzarioa egiterik.

Bosgarrena.- Udalbatzari dekretu honen berri ematea hurrengo bileran."

Eta udalbatza jakinaren gainean geratu da.

LAUGARREN GAIA

IKASTOLEN EGUNETARAKO DIRULAGUNTZA EMATEA, HALA BADAGOKO.

Euskara Batzordeak 2020ko ekainaren 16an eginiko bileran onartu zuen Ikastolen Egunetarako ospakizun batzuei dirulaguntza ematea.

Hori ikusita, udalbatzak, aho batez hau

ERABAKI DU

Dirulaguntza hauek onartzea eta ordaintzea zuzenean:

- Ibilaldia: 160 €
- Araba Euskaraz: 160 €
- Kilometroak: 160 €
- Nafarroa Oinez: 260 €
- Herri Urrats: 260 €

BOSGARREN GAIA

HARITUZ BERTSOZALEEN ELKARTEAREKIN HITZARMENA ONARTZEA DIRULAGUNTZA EMATEKO, HALA BADAGOKIO.

Euskara Batzordeak 2020ko ekainaren 16an eginiko bileran onartu zuen diktamen hau.

Irurako Udala eta Harituz Bertsozaleen Elkartearen artean lankidetzaz hitzarmena onartu nahi da, Bertsozaletasuna indartzeko Tolosaldeko bailaran 2019-2020ko ikasturtetan.

Hori ikusita, udalbatzak, aho batez, hau erabaki du:

ERABAKIA

1.-Helburu horrekin lankidetzaz hitzarmena onartzea eta 2.000 euroko dirulaguntza ematea helburu horrekin.

2.- Gorka Murua Macuso jaunari, Irurako Udaleko Alkatea, baimena ematea Udalaren izenean, hitzarmen hori sinatzeko eta beste edozein gestio egiteko, helburua bete dadin.

SEIGARREN GAIA

TOLOSAKO KOMUNIKAZIO TALDEA ELKARTEAREKIN HITZARMENA ONARTZEA DIRULAGUNTZA EMATEKO, HALA BADAGOKIO.

Euskara Batzordeak 2020ko ekainaren 16an eginiko bileran onartu zuen diktamen hau.

Irurako Udala eta Tolosaldeko Komunikazio Taldeak S.L. (Atari) artean lankidetzaz hitzarmena nahi dute adostea hedabideen alorrean euskara erabilera normalizatzeko 2020ko urtean.

Hori ikusita, udalbatzak, aho batez, hau erabaki du:

ERABAKIA

1.-Helburu horrekin lankidetza hitzarmena onartzea eta 9.300 euroko diru laguntza ematea helburu horrekin.

2.- Gorka Murua Macuso jaunari, Irurako Udaleko Alkatea, baimena ematea Udalaren izenean, hitzarmen hori sinatzeko eta beste edozein gestio egiteko, helburua bete dadin.

ZAZPIGARREN GAIA

EUSKARAREN ARLOAN, BESTE ELKARTE BATZUEI DIRULAGUNTZA ONARTZEA, HALA BADAGOKIO.

Euskara Batzordeak 2020ko ekainaren 16an eginiko bileran onartu zuen beste erakunde batzuei dirulaguntza ematea.

Hori ikusita, udalbatzak, aho batez hau

ERABAKI DU

Dirulaguntza hauek onartzea eta ordaintzea zuzenean:

- Euskararen gizarte erakundeen kontseilua: 300 €
- Hizkuntz Eskubideen Behatokia: 300 €
- Garabide: 500 €
- Euskal Herrian Euskaraz: 300 €
- Ehige: 200 €

ZORTZIGARREN GAIA

IRURA BIZI ELKARTEAREKIN HITZARMENA ONARTZEA DIRULAGUNTZA EMATEKO, HALA BADAGOKIO.

Irura Bizi Kultur, Kirol eta Gizarte-Sustapenerako Elkarteak sortu da herri giro sustatzeko eta herritarren arteko harremanak sendotzeko.

Hori ikusita Irurako Udala eta Herri Bizi Elkartearen artean lankidetza hitzarmena onartu nahi da, aipatu diren helburuak bultzako 2020ko urtean.

Hori ikusita, udalbatzak, aho batez, hau erabaki du:

ERABAKIA

1.-Helburu horrekin lankidetza hitzarmena onartu eta 3.000 euro ematea helburu horiekin.

2.- Gorka Murua Macuso jaunari, Irurako Udaleko Alkatea, baimena ematea Udalaren izenean, hitzarmen hori sinatzeko eta beste edozein gestio egiteko, helburua bete dadin.

BEDERATZIGARREN GAIA

EH BILDU UDAL TALDEAK AURKEZTUTAKO MOZIOA: ORAIN ARDURA EKIMENA ONARTZEA, HALA BADAGOKIO.

EH Bildu udal taldeak Mozioa hau aurkeztu du:

"Nik, Miren Itziar Pou Mozos, 51383008L NAN zenbakiarekin eta Gesalaga kalea 22- Zestoa (Gipuzkoa) helbidearekin, "ORAIN ARDURA" herritarren ekimenaren izenean honako mozio hau aurkezten dut Udalaren aurrean:

Aste luzeetako sufrimenduaren ondoren, gure senideak erabateko bakardadean hil direnean, pandemiaren aurkako borrokan ospitaletako langileek lan-baldintza kaskarretan larrua utzi dutenean; egoerari aurre egin ahal izateko adinekoen egoitzetako langileek ezinezkoak egin dituztenean; arnagailurik ez zegoenean gaixorik dauden pertsona guztientzat edo testak eta babes-ekipoak falta izan direnean, gizarteak egoera zail honen aurrean bultzatu dituen portaera eredugarriak azpimarratu nahi ditugu, kontaezinak izan baitira elkartasun ekimenekin.

Gizarteak erantzukizun handiz jokatzeko ari da krisi larri honetan, eta berak markatzen digu jarraitu beharreko bidea. Horregatik, etorkizun zalantzarik gabeko aurrean, erakundeak egoerak eskatzen duen mailan egon behar dira, erantzukizunez jokatzeko eta orain, inoiz baino gehiago, dirua oinarritzko gizarte-zerbitzuetara eta krisia bereziki pairatu duten sektoreentzako laguntzetara bideratzen. Honengatik guztiarengatik, "ORAIN ARDURA" ekimena bultzatu dugun pertsonak, elkarteak eta sindikatuek erakunde eta administrazio publikoak eskatzen diegu Abiadura Handiko Trenaren obra eta proiektuetan gastatzen ari diren funts publikoak oinarritzko behar horietara bideratzea, honako argudio hauetan oinarrituta:

Espainiako Estatuak munduan abiadura handiko treneko kilometroetan milioi bat biztanleko kilometro gehien duen estatua da, Japonia, Alemania, Frantzia, AEB eta beste hainbat herrialderen oso aurretik. Hala eta guztiz ere, azken tokian dago erabilerari dagokionez, eta kilometroko bidaiari-ratio baxuena du. Gainera, gogorarazi behar dugu sustapen ministerioaren datuen arabera, bidaiarien %6k baino ez duela erabiltzen habiadura handikotrena; ohiko trenak, berriz, %94 erabilerak du.

Gipuzkoan, 2020ko apirilaren 21eko Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkariaren arabera Euskal Y'ko lanak lurraldean bukatzeko 540 milioi euro gastatu behar dira oraindik. Gainera, "Euskal Y" Iruñearekin lotzeko proiektua eginda dago eta ingurune-inpaktuen ebaluazioaren zain dago. Lotura hori Aralar zulatuz egingo balitz 2.000 milioi euro inguru kostatuko luke. Guztira, gaitzuzkoak ez badira gertatzen, 2.500 milioi euro. Krisi-une honetan, eta aurreikuspenak kontuan hartuta, garrantzitsua da diru guzti hori oinarritzko gizarte-premietarabideratzea.

Beraz eta adibide gisa, azpimarratu behar da "Euskal Y" eta Iruñea arteko AHTren lineak balio duenarekin, Aralar zulatuz eraikitzen bada, duela urte eta erdi inauguratu zen Eibarkoa bezalako 75 ospitale eraiki litezkeela. Gainera, kontuan

hartu behar dugu, AHTren lineak eraiki ordez, gaur egungo trenbideak berritu eta egokitu daitezkeela, kostu askoz txikiagoetan. Horrela herriak, hiriak eta industrialdeak lotzen dituen tren sozial bat izango genuke, pertsonak nahiz salgaiak garraiatzen dituen, gune isolatuak utzi gabe lurraldea egituratzen dena eta edozein pertsonarentzat ekonomikoki eskuragarria dena.

Azpiegitura hauek milioi askotako inbertsioak eskatzen dituzte eta, bitartean, murrizketa handiak egin dira oinarritzko zerbitzuetan, hala nola, osasunean, hezkuntzan edo hainbat gizarte-zerbitzuetan. Hori dela eta, osasun-krisi izugarri honetan egunero ikusi ditugu ospitaleak gainezka, osasun-langileak txandak bikoizten, adinekoen egoitzak beren zorian abandonatuta, jendea bakardadean hiltzen, hotelak ospitale bihurtuak, etxeetan maskarak eta kareta egiten, eta abar. Ezinbestekoa da azpimarratzea lan horietako gehienak emakumeek egin dituztela, kolektibo bera gizarte honek baztertu egiten duena. Beraz, pertsonen bizitzari eta elkarrekiko zaintzari eusteko behar diren lanen garrantzia aitortu behar da, baina, zoritzarrez, alderdi horiek ere baztertu egiten dira aurrekontuen arloan.

Gainera, milioi askotako inbertsio horiek milaka laguntzako laguntzak eragozten dituzte, bai negozio txikiei eusteko, bai langabezian dauden eta baliabide falta duten pertsonentzako laguntzak izateko, bai eskolak hobetzeko, bai irakaslearekiko ikasleen ratio txikiagoa izateko, besteak beste. Azken finean, sektore ahulenentzako eta, oro har, gizarte osoarentzako laguntzak murriztearen eta ezabatzearen kontura diru-kutxak husten dituzten inbertsioak dira.

Ildo horretan, uste dugu estatu osora zabaldu behar direla Isabel Pardo de Vera ADIFeko presidentearen jarduerak, otsailean Oviedo, Avilés eta Gijón abiadura handiko konexioa baztertu zuenean, "konexio horiek 10 minutu aurrezteko besterik ez luketelako izango, milioi askotako inbertsioarekin". Hari beretik, komeni da azpimarratzea Abalos ministroak esan zituen hitz zentzudunak kargua hartu zuenean. Orduan gobernuaren apustu berria iragarri zuen: "trenbiderako inbertsioak erabat birbideratzea, urte askotan abiadura handian zentratuegiak egon direlako". Pedro Azpiazu Eusko Jaurlaritzako Ekonomia eta Ogasun sailburuaren hitzak ere aipatu nahi ditugu; orain dela gutxi "gastu publikoa murriztu eta obra handiak atzeratu beharko liratekeela" esan baitzuen.

Gaur egun, pertsona guztiek hitz egiten dute datorren krisi latzaz eta zerga-bilketa %20 jaitsiko dela esaten dute. Orain, ekoizpena birkokatzearen eta mugikortasuna murriztearen aldeko apustua egiten ari garenean, ezin dugu jarraitu ezer gertatzen ariko ez balitz bezala.

Ondorioz, krisi sozial eta ekonomikoko une hauetan, AHTrako inbertsio ekonomikoko guztia premiazko eta lehentasunezko gaietara bideratzea eskatzen dugu. Hala nola, behar adina langile eta baliabide dituen osasun publikoko sistema batera; adinekoen, mendekoen eta beraiez arduratzen dituztenen kalitateko zainketara; bidezko pentsioetara; pertsona guztientzako oinarritzko diru-sarreretara; kalitatezko hezkuntza publikora; kalitatezko gizarte-zerbitzuetara; zainketen balorizaziora; edo Covid-19aren krisiak larriki kaltetutako sektoreetako pertsonak babestera, besteak beste, merkataritza txikia, kulturaren mundua, eta abar.

OSOKO BILKURAK HARTU BEHARREKO ERABAKIAK:

- 1.- Udal honek, Euskal eta Espainiako gobernuei eskatzea krisiaren ondorioak arintzen laguntzeko handitu ditzatela oinarritzko gizarte-zerbitzuetarako eta krisiak eragindako sektoreentzako laguntzetarako aurrekontu-partidak; eta, horretarako, Abiadura Handiko Trenaren obretarako eta proiektuetarako erabiltzen diren funts publikoak erabil ditzatela, horrenbestez, obra eta proiektu horiek geldiarazi egin beharko lirakeelarik.
- 2.- Hartutako erabakien berri ematea Espainiako Gobernuako Sustapen ministroari, Euskal Gobernuari eta komunikabideei.”

Hori ikusita, Udaltzarak mozioa onartu du, aldeko 5 botorekin (EH Bildu) eta aurkako 4 botorekin (EAJ/PNV).

Eztabaida:

Ana Jesús Leunda EAJ/PNVek zinegotziak hau adierazi du:

Coronavirusaren krisi berriak, Euskadin eragin berezia izan duenak, pertsona askoren bizitzari eta osasun publikoari eragin dio eta gure historia berrian aurrekaririk ez duen krisi ekonomikoa eragiten ari da.

Horregatik, gaurko egoerak erakunde guztien aurrekontuen lehentasunak berrikustea behartzen du. Arreta berezia jarritz egoera honen aurrean ahulena diren pertsonengan eta gaurko osasun krisiak eta krisi ekonomikoak eragindako pertsonen beharrei aurre egitean.

Baina herri honek bere garapen ekonomiko, sozial eta kulturala eredu iraunkorrako baterantz bideratzen jarraitzeko behar dituen apustuak alde batera utzi gabe. Apustu hauen artean, Euskadin eraikitzen ari den abiadura handiko sarea dugu, ardatz atlantikoarekin birkonektatuz eta gure nazioaren egituratzearekin euskal hiriburuak konektatuz, funtsean higikortasun iraunkorrean lagunduko duen azpiegitura.

Alkateak, hau erantzun du:

Gure egoerako ardatza zein da, pertsonari edo porlanari lehentasuna ematea? Krisi honetan argi geratu dira sistemaren pitzadurak, ez delako egia hezkuntza edo osasunean beharrezko baliabideak jartzen direnik. Horretarako, ikusi besterik ez dira egin behar hezkuntzako edo osasuneko langileen kexak, edota ikusi zenbat balio duen abiadura handiko trenaren kilometro batek. Gainera, inoiz ez da izan benetako eztabaida, edo herritarren parte-hartzea. Trenaren proiektua gero eta gehiago luzatzen ari da eta gero gehiago kostatuko da; eta baldintzatuko ditu ez bakarrik gure belaunaldiko proiektuak, baita hurrengo belaunaldikoak ere.

HAMARGARREN GAIA

EAJ/PNV UDAL TALDEAK AURKEZTUTAKO MOZIOA: EKAINAREN 28, LGTBI HARROTASUN EGUNA ONARTZEA, HALA BADAGOKIO.

EAJ/PNV udal taldeak mozio hau aurkeztu du :

“LGTBI kolektiboa, berriro biltzen da ekainaren 28an, aurten ere, euskal gizartearen aurrean eskubideak eta bizikidetzaren aniztasunetik aldarrikatzeko., 1969ko ekainaren 28an, joan den urtean 50. urteurrena ospatzen ari ginela, Stonewalleko errebolta gertatu zen New Yorken, eta data hori bihurtu da, urtero, gure aldarrikapenak eta lorpenak agerian jartzeko eguna; ezinbestean, data hori izan behar da oraindik lortu gabe dugun guztia agerian jartzeko eguna ere.

Irurako Udalak, eskerrak eman nahi ditu bizitza eta ahaleginak eman dituzten pertsona guztiei sexu-askapenaren aldeko borrokaren alde, eta, gaur egun, gizartea sensibilizatzeko, kontzientziatzeko eta eraldatzeko lana antolatzen eta gauzatzen jarraitzen dutenei. Era berean, hemen eta gure mugetatik kanpo isilik irauten duten pertsona guztiak aitortu eta ahaldundu nahi ditu. Eta oso bereziki 2020. urte honetan, hain ohikoa ez den egoera bat bizitzen ari garen honetan.

Mundu guztian zehar etxeetako itxialdi orokorrera behartu gaituen pandemiak, kolektiboko pertsona asko erabateko babesgabatasunera eta ikusezintasunera eraman ditu. Eman diren egoera askoren artean, arreta jarri nahi dugu beren bizikidetzaren ingurunean armairuan berriz gordetzeko betebeharrak ikusi duten pertsona guztiengan, bai eta hurbileko pertsonen zainketen zama beren gain hartzen duten eta honengatik, aldi honetan bereziki bakardadea eta urruntasuna jasan duten LGTBI kolektiboko pertsona guzti horiengan.

Argi dugu ezin dela adi egoteari utzi. Azken urteotan, agerikoa da faxismoa defendatzen duten taldeen itzulera eta foro publiko jakin batzuetatik ere egiten diren saiakerak, LGTBI kolektiboaren eskubideei buruzko zalantza horien hazia mahai gainean jartzea, bai eta pertsona guztien berdintasunari buruzkoa ere.

Horregatik uste dugu berebiziko garrantzia dutela bizitza eta eskubideak babesten dituzten lege arau berriak. Oso garrantzitsua da, halaber, LGTBI kolektiboaren egungo errealitatea ezagutzeko, hiri-zurrumurru eta -kondairez gain, egiaztatutako eta kuantifikatutako datuekin.

Ikusgaitasun lesbiko, trans eta bi-en egunak, trans despatologizazioaren aurkakoak, LGTBI fobiaren kontrakoak... bat egiten dute gaur egun, garen bezala izatearen eta nahi dugun bezala desiratzearen harrotasunaren aldarrikapenean, bakoitza bere erara, denak eta anitzak.

Hori guztiagatik, hurrengo MOZIOA onartzea proposatzen dugu:

Irurako udalak konpromezua hartzen du ondorengoak burutzeko:

- 1) LGTBI pertsonen eskubideak bermatze aldera, administrazio-formularioetan aldaketak egitea binarismoa gainditzeko eta espazio publikoko elementuak egokitzea.
- 2) Erregistro Zibilari eskatzea emakume bikoteek haur jaioberriak erregistroan inskribatu ahal izateko baldintza diskriminatzaileak kentzeko.
- 3) Herriko ikastetxe, ludoteka eta gaztelekuarekin batera, haur eta gazteen artean gure gizartearen aniztasuna (sexu orientazioa, genero identitatea, jatorria, erlijioa...) ikusarazi eta errespetatzen erakutsiko dieten edukiak eta ekintzak lantzea.
- 4) Herriko hezkuntza arloko eragileekin batera LGTBI haur eta gazteek bullying egoerarik pairatu ez dezaten jarraipen zorrotza egitea.
- 5) Herriko adinekoren egoitzarekin lankidetzan aritzea, LGTBI pertsonen beren aukera sexuala eta genero aukera askatasunez bizi ahal izan dezaten.

- 6) Udaleko kultur programazioan LGBTI kolektiboaren bisibilizazioan lagunduko duten edukiak programatzea.
- 7) Herriko kirol taldeentzako formakuntza saioak antolatzea, kirolaren eremuan ematen diren diskriminazio egoerak ekiditeko helburuarekin.
- 8) COVID-19 pandemiak ekarri digun testuinguru berrian ere lanean jarraitzea berdintasunezko gizarte baten alde.
- 9) Arlo honetan eskuduntzak dituzten erakunde ezberdinei eskatzea emakume transexualek bizi dituzten diskriminazio egoerei eta, batez ere, lan merkatuan sartzeko dituzten zailtasunei aurre egiten laguntzeko ekimenak bultzatzea.

El colectivo LGBTI vuelve a reunirse este 28 de junio, un año más, para reivindicar ante la sociedad vasca los derechos y la convivencia desde la diversidad. Desde que 28 de junio de 1969 - celebrábamos el año pasado el 50 aniversario - ocurriera la revuelta de Stonewall en Nueva York, esta fecha se ha convertido en aquella en la que, cada año, nuestras reivindicaciones y logros son más visibles; ineludiblemente debe ser también la fecha en la ponemos de relieve todo aquello que aún nos queda por conseguir.

El Pleno del Ayuntamiento de Irura, desea agradecer a todas las personas que han entregado su vida y esfuerzos a favor de la lucha por la liberación sexual, y que a día de hoy siguen organizándose y llevando a cabo una labor de sensibilización, concienciación y transformación social. Quiere también reconocer y empoderar a todas las personas que resisten en silencio aquí y más allá de nuestras fronteras. Y quiere hacerlo muy especialmente este 2020 en que nos toca vivir una situación tan fuera de lo común.

La pandemia que nos ha obligado al encierro generalizado en todo el mundo, ha llevado a muchas personas del colectivo al más absoluto desamparo e invisibilidad. Entre muchas de las situaciones que se han dado, nos gustaría poner el foco en todas aquellas personas que se han visto en la obligación de **rearmarizarse** en su propio entorno convivencial, así como en todas aquellas numerosísimas personas LGBTI que asumen la carga de los cuidados de sus personas cercanas y que, por ello, en este periodo han sufrido muy especialmente la soledad y el distanciamiento.

Tenemos claro que no se puede bajar la guardia. Durante los últimos años es patente el retorno de grupos que defienden ideologías fascistas y los Intentos que se llevan a cabo, incluso desde determinados foros públicos, de poner sobre la mesa la semilla de la duda sobre los derechos del colectivo LGBTI, así como sobre la igualdad de todas las personas.

Es por ello que consideramos de vital importancia la existencia de normas legales renovadas, que protejan las vidas y los derechos de las personas LGBTI. Es también de vital importancia conocer, más allá de los rumores y las leyendas urbanas, con datos constatados y cuantificados, la realidad en la que vive actualmente el colectivo LGBTI.

Los días de la visibilidad lésbica, trans, bi, contra la despatologización trans, en contra de la LGTBIfobia... se fusionan hoy en la reivindicación del orgullo de ser y desear, cada cual, a su manera, todos y todas diversas.

Es por todo esto que proponemos la aprobación de la siguiente MOCION:

El Ayuntamiento de Irura se compromete a:

- 1) Activar medidas dirigidas a garantizar los derechos de las personas LGBTI, como cambiar los formularios administrativos para superar el binarismo y adaptar los elementos del espacio público cuando sea necesario.

- 2) Solicitar al Registro Civil que se suprima el requisito discriminatorio hacia las parejas de mujeres, que deben estar casadas para inscribir a los recién nacidos.
- 3) Junto a los centros educativos, gazteleku y ludoteca, trabajar en contenidos y acciones para visibilizar la diversidad de nuestra sociedad (diversidad por orientación sexual, por identidad de género, origen, religión...) y enseñarles a respetarla.
- 4) Colaboración y seguimiento continuado con los centros educativos locales para prevenir situaciones de bullying entre los niños y adolescentes.
- 5) Colaboración con las residencias de mayores de la localidad para que las personas LGTBI puedan vivir en libertad su opción sexo-genérica sin discriminación.
- 6) Programar en la agenda cultural actividades que contribuyan a visibilizar al colectivo LGTBI
- 7) Organizar sesiones formativas dirigidas a los clubes deportivos para prevenir las situaciones de discriminación que se puedan dar en el ámbito deportivo.
- 8) Trabajar en la nueva realidad que nos ha traído la pandemia del COVID-19 para construir una sociedad más libre e igualitaria.
- 9) Instar al conjunto de las instituciones con competencia en esta materia a impulsar iniciativas dirigidas a las mujeres transexuales para superar las situaciones de discriminación y especialmente las dificultades para acceder al mercado de trabajo. “

Eta udalbatzak, aho batez , onartu du.

Gainera Alkateak adierazi du mozio hau berdintasun teknikariari pasako diola aipatu diren gaiak Iruran lantzeko.

HAMAIKAGARREN GAIA IDAZKARI KONTU-HARTZAILEAREN TXOSTENAK.

Ez dago Idazkari kontu-hartzailearen txostenik.

HAMABIGARREN GAIA GALDE -ERREGUAK.

Ez dago galde-erregurik.

OHARRA: eztabaida osoa jasota dago “www.irura.eus” helbidean.

Aztertzeke beste gairik ez dagoenez, alkateak 19:50ean eman du amaitutzat bilera. Bertan esandako guztia aktan jaso dut, eta dena EGIAZTATZEN dut, idazkari gisa.

ALKATEA

IDAZKARIA